

Txirrindulari txikien festa

Gaur koadrilen arteko bazkaria izango da ▶ 4



San Inaziori dantzatzuz hasiko dira Altzoko jaiak

AFARIA ▶ Zikiro-jatea izango da herriko pilotalekuan 200 lagun ingururentzat

IGOERA ▶ Bihar txirrindulari igoera egingo da; astelehenean amaituko dira aurtengo jaiak ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Presoen aldeko udako ekitaldiak

Bihar errepideetan kontzentrazioak egingo dira ▶ 2

ANOETA ▶

Udalaren jarrera salatu du AHT Geldituk

Ikasturtearen balantzea egin berri du herriko taldeak ▶ 5

LEITZA ▶

Harrobiaz kontsulta egiteaz ariko dira

Beste hainbat gai jorratuko dira gaurko udalbatzarrean ▶ 7



Juan Mari Jauregi gogoratu dute laugarren urtemugan

TOLOSA ▶ Atzo bete ziren lau urte Juan Mari Jauregi zinegotzi sozialista eta Gipuzkoako gobernadore zibila zena ETAK hil zuela. Hainbat ekitaldi burutu zituzten bere senideek, lagunak eta alderdi politikoetako ordezkariak. Burnikurutzean abestu egin zuten eta Legorretako eskulturaren aurrean eta hil zuten tokian lore

eskaintza egin zuten. Ondoren bazkari batean elkartu ziren. Maixabel Lasa alargunak horrelako «onarpen ekitaldiak» egin behar direla esan zuen. Oscar Renedo zinegotziak biolentziarekin bukatzeko gobernuaren «jarrera berria» aprobetxatu behar dela esan zuen. Argazkian, Lasa eta Renedo loreekin. **INIGO ASENSIO** ▶ 3

NEREA 1962 **LENTZERIA**

HAUR MODA (8 hilabete - 16 urte)

Pijamak eta bainujantziak %40 eta %50-eko **BEHERAPENAREKIN**

Errementari kalea z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

IBARRA **LAN BERTIKALAK**

MARGO LANAK - IGEITSEROTZA - UR GIDATZEA - GARBIKETAK
APAINGARRI KONPONKETA - USOEN AURKAKO SISTEMAK

Azkue, 11 • 2.A • IBARRA
mug.: 619 877 397 - 677 667 278

Andamiorik gabeko lanak

943 67 14 27

ZUTE

Alzajaindegia

SANTA GLORIA

TOLOSA ▶ PALETA

Paleta txapelketako finalak gaur

'Txapela'-ren Oroimenezko Txapelketaren finalak Berazubini dira

INIGO ASENSIO

Gaur amaituko da astelenehenean hasi zen Miguel Aldalur Txapelaren Oroimenezko Paleta Txapelketa. Zazpi bikoteek hartu dute parte txapelketa honetan: Zabaleta-Apeztegia, Lakunza-Urdanpilleta, Yugueros-Artola, Bengoa-Goitia, Otermin-Garces, Renobales-Aldazabal eta Garmendia-Maiza. Gaur, betiko moduan, 19:00etan hasiko da 3. eta 4. postuetarako partidua Renobales-Aldazabal eta Garmendia-Maiza bikoteen artean eta ondoren fi-

nala Lakunza-Urdanpilleta eta Bengoa-Goitiaren artean.

Esan bezala, lehen partida astelenean izan zen, eta bertan Renobales-Aldazabal bikoteak 30-25 garaitu zuen Otermin eta Garcesek osaturikoa. Astear-ean, Zabaleta-Apeztegia eta Lakunza-Urdanpilletaren arteko lehia, bigarrenak suertatu ziren irabazle 20-30eko emaitzarekin. Hauen ondoren Yugueros-Artola eta Bengoa-Goitia bikoteen arteko partidua jokatu zen; horretan, bigarrenak lortu zuten garaipena 30-20ko emaitzarekin.

Gauzak horrela, asteazkenean txapelketaren finalerdiak jokatu ziren eta bertan lau bikote lehiatu ziren finalerako plaza lortzeko. Lehen partiduan Lakunza-Urdanpilletak 30-20koa lortu zuten, Renobales-Aldazabal bikotea garaituz eta gaur arratsaldeko finalean egotea ziurtatuz. Horren ondoren, Lakunza-Urdanpilletaren aurka zein neurtuko zen erabaki behar zen eta helburu horretan jokatu zuten beste finalerdia Bengoa-Goitia eta Garmendia-Maiza bikoteek. Partidu honetan Bengoa-Goitia nagu-



Renobales-Aldazabal eta Otermin-Garces jokoa. INIGO ASENSIO

situ ziren, 30-24ko emaitza lortuz.

Txapelaren Oroimenezko Paleta Txapelketaren lehen faseak amaitu dira, beraz, eta orain,

txapelketaren momentu garrantzitsuena heldu da: finalak. Txapela irabazi nahi duen bikoteak gogor egin beharko du lan.

TOLOSALDEA ▶ PRESOKAK

Presoen alde, mobilizazio bereziak udan

Abuztuko irteera operazioarekin batera errepideetara joko dute bihar eguerdian

IRATXE ETXEBESTE

Etterat elkarrekin mobilizazioak antolatu ditu udan ere euskal preso politikoek eskubideak aldarrikatzeko. Izan ere, «euskal errepresaliatu politikoek kolektiboak pairatzen duen politika errepresiboa eta senideok [Frantziako eta Espainiako] estaturen aldetik bizi dugun bortizkeria agerian uzteko garai ezin hobea da» uda.

Hori dela-eta bihar abuztuko irteera operazioaz profitatuz kalera irteerako dutela esan dute Etterat-eko kideek, astebururo milaka lagun eta senitartekok errepide ezberdinak zeharkatzen dituztela adierazteko. Giza-kate erraldoia egingo dute errepideetan, hala: «Ekimen sinbolikoa da, baina aldarrikapenerako balio duena». Euskal presoak Euskal Herritarren aldeko aldarriekin egingo dute giza-katea, eta herri bakoitzeko presoek argazkiak eraman-gotuzte dagokien lekura. Tolosan, esaterako, 11:45erako egin dute deia Santa Luzian eta Amaroizko biribilunean.

Errepideetan bakarrik ez, Euskal Herriko hondartzetan

ere salatuko dute Etterat elkarrekin kideek preso sakabaketa, «dispertsio politikaren bukaera eta euskal errepresaliatu politikoek Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoan parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzeko». Gainera, «jendez gainezka egoten diren aireportuetan eta autobus geltokietan» ere izango direla iragarri dute Etterat-ekoek.

Edonola ere, hondartzetan inguruan biltzen diren sektoreetako jendearen inplikazio zuzena eskuratu nahi du Etterat-ek, eta giza-kateak burutzen dituzten tokiak erabiltzen dituzten lagunak zein elkarte ezberdinen agerria eta inplikazioa lortu asmo du aurtengoan, surflariak, arrantzaleak, boleibol jokalariek... «Euskal presoak Euskal Herrira apustuarekin haien konpromisoa ager dezaten gurekin batera». Tolosaldeko herritarrei Zarauzko hondartzara joatea egokitzeko zaie, eta eskualdeko kideek 11:45erako dute hitzordua egina egun horretarako Musika Plazako kioskoan.

Nazio mailako udako bi ekimen horiek —eta, batik bat,



Presoen Euskal Herriratzera eskatuko du udan ere Etterat-ek. HITZA

biharkoa— «sobera ezagunak» direla uste dute Etterateko ordezkariak, «urteetan, abuztuko irteera operazioarekin batera, errepidez errepide, Euskal Herria zeharkatu eta elkartu egin dugulako, Iparraldetik Hegoaldera». Urtean behin egiten duten hitzordu horretako, baina, «auzo auzoko eta herriz herriko konpromisoa eta ardura» eskatu die herritarrei Etterat-ek.

Ostiraletako elkarretaratzea

Etterat elkarrekin hileko azken ostiraletan antolatzen dituen elkarretaratzeak egingo dituzte, bestalde, gaur, Tolosaldeko herri gehienetan. Euskal presoak Euskal Herria lelopean, kontzentrazioak edota manifestazioak izango dira ohiko leku eta orduetan.

TOLOSA ▶

Olio bilketa gaur egingo dute Trianguloan

Hileroko azken larunbatetan egiten dute gehienetan, baina etzi San Inazio eguna denez, jaieguna, alegia, olio bilketa gaur egingo dute Trianguloan. 09:00ak eta 13:00ak bitarte eraman dezakete herritarrek etxean pilatutako olio erabilia Foruen plazan egongo den furgonetara.

TOLOSA ▶

Musika Bandak Plaza Berrian jardungo du gaur

Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko du Plaza Berrian, 23:00etan hasita. Dantzarako doinuak eta San Inazio martxa eskainiko dituzte herriko musikariek Gau Giro programaren baitan antolatu duten emanaldian.

TOLOSA ▶

Shanti taberna gaur zabalduko dute azkenekoz

2002ko uztailearen 25ean bete zituen 50 urte, eta honezkeri beste bi ere badituela, gaur zabalduko dituzte bere ateak azkenekoz. Shanti taberna betirako itxiko dute, izan ere, gaineko etxebizitza eta taberna bera bota egingo dituztelako. Lastima. Gogoko genituen tortila txapelak.

MOBILIZAZIOAK ▶

IRTEERA OPERAZIOA

Noiz. Bihar, 12:00etatik 13:00etara. Hasieraren eta amaieraren berri emateko, suziariak botako dituzte.

Non. Gipuzkoa zeharkatzen duen N-1 errepidean kokatuko dute ekimena. Tolosaldean, 445. kilometrotik 425. era arte (Villabona eta Alegia artean).

HONDARTZAK

Noiz. Abuztuaren 8an, igandez. 12:00etan hasiko dira enkarteladak eta 14:00etan bukatuko.

Non. Tolosaldeko herritarrek Zarauzko hondartzara joan beharko dute egun horretan.

GUTUN@K 

Urtebete pasatu ondoren

Dagoeneko urtebete pasatxo da udal hauteskundeak izan zirela. Orduko emaitzen arabera Belauntzako Sustriak herri plataformak, kandidaturarik bozkatuena diferentziaz, alkatetza eskuratu zuen. Denbora gutxiz baina, EA-Erroizpe-EAJ kandidatek berehalakoa larpurto baitzizuten alkatetza. Ez gintuen sorpresaz harrapatu; iragarri baitzizuten hauteskunde egunetik. Nondik bestela egun hartako beraien goza eta algarra? Kontraren hiru sektoreek elkarrekin ospatu zuten (Trinitatearen misterioa: 3 pertsona bakar batean, benetako Jainko bakarra).

Ezin bestela izan. Balizko diferentziatik kanpo, ezaugarri bat zuten komunean: herriko instituzioa bereganatzea, nola edo hala, baina bereganatu. Boteretxo pixka bat, pastel puska bat banatzeko sikiera. Belauntza oso herri txikia izan arren, kazike familia bat baino gehiago baitago.

Gerotzik, herritarrok jasandako erasoan zerrrenda luzeegia litzateke idazki bakar batean kontatzeko. Bakar batzuk aipatzearen, hor ditugu aurtengo jaiak. Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezalaxe, jaietako eredu parte-hartzailea amets bat besterik ez da izan. San Joanetako egitaraua, Udala eta beronek sorturiko Gazte Batzordea fantasma baten artean antolatuta baitzuten. Ze festa mota izan daiteke herritarrok, eta bereziki gazte-riarekin kontatu gabe antolatzen direnak? Zorionez, festa alternatiboak antolatuta zituzten herritar gehiengoak bilduz. Udalaren inolako diru-laguntzarik gabe noski, eta kanpoko jenderik ekarri gabe.

Berriki Udalak «herri batzarreko» deialdia egin zuen. Gaia: ur depositu berria. Beti bezala, deialditik bilerarako tarte gutxirekin. Hara joan eta zein izan zen gure harridura, mahai-buruan EAJ-EA-Erroizpe taldekoak, alkatea buru eta Ur kontsortzioko trajedun bat aurkitu genituen. Denak batera, alde zuzenetik ezkutuan hartutako erabaki bat azaltzeko. Beraiek erabakitakoa herritarrek ontzat emate

naahi dute, txalotzea. Erabakia «label» demokratikoa erakutsi behar nonbait.

Komeriak, hala ere, diskurtsoaren bukaeran hasten dira. Herritarrok galdezka hasten direnean, txalotu edo txundituta utzi ordez, bere kritikotasuna erakusten dutenean. Hori ez zuten kontuan hartu bere prebisioetan. Alkatea orduan konturatzen da eta herri batzarren formatua aldatzen du. Ezbaidarako iritzi trukaketarako, eta azkenik, bozketarako gune bat izan behar duena, asanblada informatibo batean bilakatzen dute. Gure susmoak bete dira: alde zuzenetik erabakia hartua zuten eta bakarrik indar metaketa beraien alde izatekotan planteatuko zuten bozketa. Ez da kasua. Ez da kasua gutxiengoa baldin badira, argudiorik gabe (iraink terapia gisa baliagarriak izan daitezke, ez ordea jendea konbentzitzeko) eta korrika eta presaka asanblada bukatuta ematen dute, alkatearen garrasien artean. Bere senetik aterata, beti bezala.

Ezin ahaztu ere Herriko Tabernaren afera. Bertako ustiatzaileari

zioten aspaldiko gorrotoa ederki asetu zuten. Bere delitu bakarra: Belauntzako Sustriak herri-plataformako kide izatea. Alkatetza larpurto ziguten bezain azkar, eta abisurik gabe, kanporatu egin zuten, nahiz eta praktikan herriko gune garrantzitsuenetakoa—Gaztearekin batera— itxi behar bazuten ere. Horrela suertatu zen eta hainbatetan aitortutako mende-kua bete zuten, hitzetatik praktikara pasatuz.

Badira bi hilabete Herriko Taberna itxi zutenetik, baina herritarrentzat itxita badago ere, EAJ-Erroizpe-EA-ko zinegotzien eta bere lagunen bilgunea afari eta mozkorraldiarako bilgune ezin hobea bilakatu da. Orain, ustiatetarako lehiaketa ateratu dute eta ez dakigu zeinek hartuko duen. Bai, badakigu, hala ere, bere «konfiantzako» pertsona, bere gustukoa, izan beharko duela. Baldintzak irakurri besterik ez dago hau baieztatzeko. Atentzioa bereziki deitu dugun betebeharrak bat dago: onizte eskubidea ustiatzaileak izango duela, baina kanpotarren kasuan bakarrik, herritarra edo auzotarra

baldin bada erabakia tabernan sartzeko ala ez Udalaren esku uzten saiatu dira. Komentariorik gabe.

Baina Herriko Taberna ustiatzen zuten familiakoak ez dira errepre-sioa jaso duten langile bakarrak. Antonia, udaletxea garbitzen zuen langilea, kanpora bota zuten. Berak ere ez zien botoa eman eta ... Orain, lan arloko epaitegian dago. Epaileak lehenengo epaiketa eten behar izan zuen. Arrazoiak? Eburne Arbelego alkatearen izenean, abokatuak frogatzen erakustearren indizioak ikusi zituela. Fakturak euskaraz eta ordenadorez aurkeztu zituzten, euskara hitz egiten eta ordenadorea erabiltzen ez dakien pertsona baten izenean, eta inongo sinadura eta erregistrorik gabe gainera. Zaila.

Gaztetxea itxeko (beraiek kontrolatzeko) egindako saiakerak, porrot egin zuen inguruko gazte-txoen elkartasunari esker...

Ez gara gehiago luzatuko, oraingoz nahikoa izango da.

GARIKOTZI ARGOTE ASTIBIA
BELAUNTZAKO SUSTRIAK

TOLOSA ▶ POLITIKA

Juan Mari Jauregi gogoan izan dute hilketaren urtemugan

Onarpen ekitaldiak «beharrezkoak» direla esan zuen bere alargunak; Gobernu berrian «itxaropena» du Renedok



Juan Mari Jauregiaren argazkiaren aurrean jarri zituzten loreak. IÑIGO ASENSIO

JOXEMI SAIZAR

Burnikurutzetan —bere errautsak zabaldua dauden tokia, Santa Marina inguruan— *He-goak ebaki banizkio* abestuz, Legorretako etxean eskulturaren ondoan lore eskaintza eta Tolosan Fronton kafetegiaurrean — ETAK duela lau urte hil zuen tokian— beste lore eskaintza eta bazkaria eginez gogoratu zuten atzo Juan Mari Jauregi gobernadore zibil eta zinegotzi sozialista izan zena bere senideek, lagunak eta udalbatzako hainbat kidek. PSE-EEko ordezkari eta zinegotziekin batera, EAJ, EA eta EBko zinegotzi batzuk ikus zitezkeen San Frantzisko pasealekuko ekitaldian.

Memoria berreskuratzeko

Maixabel Lasa alargunak —gaur egun biktimei laguntzeko zuzendaria da Eusko Jaur-larritza— senarra «eta ETAK hil dituen guztiak» gogoan izan zituen. «Herri batzuetan egin dira horrelako onarpen ekitaldiak erakunde eta herriaren aldetik. Memoria hori berreskuratu beharra dago eta denok izan behar ditugu gogoan», adierazi zion HITZARI.

«Orokorrean biktimen oroimena onartzea izan da ekitaldion helburua. Eta, bestalde, Juan Mariren lana errekonozitu nahi izan dugu: gizon irekia, el-karrizketazalea, langilea. Lekuko hori jaso dugu besteok

lanean jarraitzeko», adierazi zuen Oscar Renedo PSE-EEko zinegotziak. Bere hitzaldian Jose Luis Lopez de la Calle, Pagazaurtundua eta orokorrean ETAK hildako guztiak aipatu zituen.

Gobernuaren «jarrera berria»

«Gobernu aldatetarik une garrantzitsuan gaudela iruditzen zait, jarrera berriak daudelako, eta aprobetxatu behar dugu biolentziarekin bukatzeko, gaur egun dagoen helburu garrantzitsuen», esan zion Renedok HITZARI. «Argi dago lan egiteko behar dela, esfortzu handien frutua izan behar du. Seguraski denok, alderdi guztiok, zerbait utzi beharko dugu bidean hori lortzeko. Baina lehenetara horrek du: biolentziarekin eta ETArekin bukatzea. Hortik aurrera hitz egin daiteke. Estatutua erreformatu beharko da? Bada, erreformatu beharko da. Pausoak eman beharko dira. Elkarriketaren bidez, Jauregiaren talentearekin, akordioetara iritsi daiteke», erantsi zuen zinegotziak.

PPren gobernuarekin garai «oso txarra» pasatu dela esan zuen, «historian zehar izan den itxierarik handiena» ezagutu dutela. «Aldaketa positiboa da. Ibarretxe eta Zapateroren lehenengo eguneko irudia positiboa da, aurrez aurre zegoen positioa desblokeatu egiten da. Orain lan egiteko unea da», esanez bukatu zuen.

TOLOSALDEA ▶

Hogei lagunek hartu dute parte enplegu tailerretan

Adineko pertsonen giza-osasunerako zainketa eta basozain ikastaroak dira

G. AZKUE

Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkartek enplegu tailerrek antolatuta zituena urtearen hasieran. 25 urtetik gorako langabetuei zuzendutako enplegu eta formazio programa honen bidez Eskualde Elkartek 20 pertsona kontratatu ditu programa honetan parte hartzeko. 16 emakume eta 4 gizonetako hauek, lanaldi osoan egongo dira lanean urtebetean.

Proiektu honen baitan, bi tailer jarri ziren martxan. Lehenengoa, adineko pertsonen giza-osasunerako zainketa tailerra izan zen. Honetan, hamar emakumek hartu dute parte. Hasierako bi hilabeteetan prestakuntza jaso zuten, eta ondoren, formazioa eta lana tartekatuta dituzte gerontologiko ezberdinetan, Eguneko zentroetan eta Zaharren egoitzetan.

Bigarrena, ingurumenaren zainketa-basozain langile tailerra izan zen. Bigarren honetan, sei emakumek eta lau gizonetako hauek hartu dute parte. Lan honetarako makinarria erabiltzen jakiteko ikastaroa izan zuten lehendabizi, eta, ondoren, eskualdeko zenbait ibilbide garbitzen aritu dira ikasleak, besteak beste, larralen, Adunan, Villabonan, Zizurkilen, Iruran, Gaztelun, Leaburun, Aitzon edota Ikaztegiatan.

Eskualdeko udalen eta INEM-en diru laguntza izan dute ikasleei intsertzioa ahalbidertzeko.

VILLABONA ▶ JAIK



Herriko txikitxoek abiatu ziren lehenengo Errebote plazatik. G. AZKUE

Txirrindulari gazteak ibili ziren atzo herrian haur jaialdian

Gaur koadrilen arteko bazkaria eta bertsolariak izango dira jaietan

GARAZI AZKUE

Txirrindulari txikiak izan ziren atzo arratsaldean protagonista Villabonako Santio jaietan. Ehunka bizikleta bildu ziren herriko kaleetan, lasterketan parte hartzeko prest.

Errebote plazatik abiatu ziren guztiak, lehenengo txikiak. Plazatik Olaederra ingurura joan, handik Kale Berrian barrena Izkiñaraino eta berriro ere plazara egin zuten txirrindulariek. Adinaren arabera, taldetan banatuta abiatu ziren.

Gaur bertsolariak

Urtero egiten den moduan, gaur koadrilen arteko bazkaria

izango da Villabonako Etxe-Ondo inguruan.

Gauean berri, ohitura zaharrei eutsiz, bertsolarien txanda izango da. Arroako taula gainera, Sustrai Kolina, Jesus Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Txomin Garmendia eta Jose Agirre igoko dira 22:30etik aurrera Santiotako bertso saioa eskaintzera.

EGITARAUA ▶

11:00etatik 13:30era. Gorritiren haur jaialdia izango da Errebote plazan.
14:30. Koadrilen arteko bazkaria Etxe-Ondon.
Ondoren. Kalejira Incansables



Ederki moldatu ziren txikiak txirrinduariekin. G. AZKUE

txarangarekin.
20:00. Erromeria Triki Ta Ke taldearekin plazan.
22:30. Bertsolariak Arroan.
00:00. Erromeria Triki Ta Ke taldearekin plazan.

GUTUN@K ▶



Santio jaiak: dezenteko zentzugabekeria

Duela urtebete (iazko Santiotan) argitaratu zuen HRRZAK gaurko honen pareko idatzia. Aurten DVra bidali dut, baina, inongo abisu edo kontsultarik gabe, garrantzitsuak diren zenbait esaldi *kendu* dituzte. Beraz, hemen nahiz berriro latakun.

Asko aldatu dira gauzak azken urtetan, aisia eta jai herrikoiak ulertzeko eta bizitzeko erari dagokionez.

Jarrera gero eta pasiboagoak ari dira hedatzen eta elkarlanerako gogoak ahultzen. Gero eta gehiago kostatzen zaio jendeari donaneko lanetan parte hartzea. Esaterako, aurtengo Villabonako Santio jaietan ez dago konpartsa herrikoirik, danborrada zalan-tzan, txistulari alardetik ere ez da egingo...

Zergatik dira Santio jaiak dezenteko zentzugabekeria?

Aurtengo Santio jaien kostua (120.000 euro/20 milioi pezeta) zentzugabea delako. Are eta zentzugabeagoa, 2004 urte osorako Kultura Ekintzetarako (antzerkia, musika emanaldiak, ikastaroak, hitzaldiak, Udal Liburutegirako liburu erosketak, haurrentzako filmak,...) aurrekontua 100.000 euro/17 milioi pezeta baino baxuagoa dela kontutan hartuz gero.

Zortzi egunetako jaiak antolatzeak ez duelako neurritz kanpoko kostu ekonomikoa soilik suposatzen. Baita ere, desproporzio ikaragarriak lanak eskatzen dituelako. Gogora dezagun 5.700 biztanleko herri batean bizi garela.

Oso erraza da konparaketak egitea beste herrietako datuak eskuratuz gero: biztanle kopurua hartu, gastuak mahaigaineratu, jaietako parte hartzea *neurtu* eta hauxe emaitza Villabonan: dirutza itzela, neurritz kanpoko lanak, jai luzeegiak eta gero eta parte-hartze eskasagoa.

Modu batera edo bestera urtero azaltzen da eztabaida Jai Batzordean. 19 urte daramatzat batzordekide lez eta 6 udalbatza ezberdin ezagutu ditut, baina berdintsu jokatu dute denak arazo honen aurrean, ausardiari gabe.

KOLDIO ETXABE ▶ VILLABONA

**MAXOLA
TABERNA**

Erribea, 4
Tel.: 943 69 05 91

IRV ALDETTA EDARITEGIA

Kale Berria, 15
Tel.: 943 69 09 41

JOE BAR

Altxin, 1
Tif.: 943 69 31 54

SANTIO JAIETAN ERE ZUEKIN IZANGO GARA!!

chaplin Pub

- Terraza ederra
- kopak ...

Ondo pasa! Errota, 6
Tel.: 943 69 02 66

ARTEKARITZA • ASESORANTZA

IRAOLA

BERRIA, 58
20150 Villabona
Tel.: 943 69 27 63
Faxa: 943 69 27 74

ANOETA ▶ AHT

Udalaren jarrera salatu du AHT Gelditu! Elkarlanak

Anoetako taldeak 2003-2004 ikasturtearen balantzea egin berri du

ERREDAKZIOA

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak taldeak 2003-2004 ikasturteko balantzea egin berri du. Era berean, hainbat ondorio atera eta aurrera begirako lan ildoak ere zehaztu ditu.

Udalaren aldetik jasotako «bazterketa» salatu du Elkarlanak: «2003ko ekainaren 14an EAJ-EAK Udalaren agintea hartu zuten, eta hauekin hainbat bilera egin genituen, AHTren inguruan ditugun kezkek azaltzeko asmoarekin. Baina ez zituzten argibiderik eman, egitasmoa izkutu eman nahi baitute aurrera. Udal berriaren jarrerak, beraz, eragin handia izan du Abiadura Handiko Trenaren auzian, eta proiektu honen aurka lanean ari den AHT Gelditu! Elkarlanean. Hasieratik, aurreko Udalak ematen ez zigun bazterketa jaso dugu oraingo Udalaren aldetik: informazioa, gure lana burutzeko gela, ekintzak aurrera eramateko dirulaguntza eta azpiegitura egokia ukatu eta kartelak kentzen dizkigute... Duela urtebete osoko udal batzarrari AHTren inguruan aurkeztutako mozioaren eztabaida baztertzin jarraitzen dute». Udalaren «isiltasunari, bazterketari eta pobrezia demokratikoari» behin eta berriro erantzuten jarraituko dutela azpimarratu dute Elkarlanekoek.

Zundaketa lanen aurreran Udalak hartutako jarrera ere kritikatu dute taldekoek. Haien esanetan, aurreko Udalak, «beste udal eta lurjabeekin batera eta udal aparejadorearen iritzian oinarriturik» ez zien baimenik eman lanei. Egungo Udalarekin jarrera aldatu egin dela adierazi dute, era berean: «Agintean ditugun araberak,



lazo urrian antolatutako AHTren Aurkako Astearen baitan, mendi ibilaldia egin zuten Elkarlanekoek eta herritarrek, kaltetutako inguruak aurrez aurre ezagutzeko. HITZA

Udalak ez du inongo konpententziarik lan hauen aurrean. Nola ez da izango Udalaren kompetentzia, besteak beste, herriko lurretan makinaria sartu eta lurrak okupatu behar direnean? Are gehiago, Burdin Aroko Basagaingo herrixkan zundaketa lan hauek egin behar dituztenean». EAJ-EAK «taldearen interes partikularrak herritarren gainetik» jarri dituztela salatu dute.

Iazko urrian AHTren Aurkako Astea antolatu zuen Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak. Zenbait ekintzen bidez, informazioa zabaltzea eta herritarrek sentsibilizatzea zen asmoa. Taldeak «oso balantze positibo» egin zuen ekimenaz, eta «arrakasta hori aurtengo Jai Alternatiboetan errepikatu» egin dela gogoratu dute. Bi hitzordutan egindako Herriko Baserritar eta Artisanu Azokak jasotako erantzuna azpimarratu dute, batez ere.

Hori guztiaz gain, batzarrak, Durangoko Azokan manifestazioa, Mendiz-mendi AHTrik ez! mendi ibilaldia Basagainera, Bruselako Europako Parlamentuan bilera eta zenbait jardunaldi ere antolatu dituzte taldekoek.

Hiru ondorio nagusi

Pasatu den ikasturtetik hiru ondorio nagusi azpimarratu du Elkarlanak. «Udalaren jarrera baztertzalea» da lehen dabilakoa: «Udala baztertu egiten gaitu, ez du AHTren proiektua eztabaidatu nahi, isiltasunarekin erantzuten du... Guzti honek Anoetako Udalaren demokratia kalitatea, oso eskasa, adierazten du».

Udalak «AHTren proiektuaren alde» egiten duela adierazi dute ere taldekoek, eta «bere betebeharrak arduerik uko» egiten diela: «Zundaketen auzian Udalak ez die herriko lu-

rretan egin nahi diren lan hauei jarraipenik egin nahi. Lan hauek, gainera, Basagaingoren ondarea arriskuan jartzen dute».

Abiadura Handiko Trenak «Anoetako naturan eta anoetarren bizi-kalitatean eragingo dituen ondorio kaltegarrien inguruan informatzen eta sentsibilizatzen lan asko» egin dela azaldu dute, era berean. Gainera, «proiektuaren aurka gero eta herritar gehiago» dagoela eta ekintza proteste esker zundaketa lanak egin ez direla «pozik» agertu dira.

Bestalde, «kexu eta haserre» azaldu dira taldekoak, haien esanetan, Udalak kartelak kentzen dizkietelako. «Udalak kartelak kendu izana gogor kritikatu nahi dugu. Taldearen ekintzak eta informazioa gizarteratzeko bidea kartelak baitira neurri handi batean. Udalak taldearen parte-hartzea mugatzen du horrela. Eta Elkarlanak

BAZTERKETA

«Udalak baztertu egiten gaitu, isiltasunarekin erantzuten du; demokratia kalitate eskasa adierazten du»

PROIEKTUA

«AHTren proiektuaren alde dago Udala; taldearen interesak herritarren gainetik jartzen dituzte»

ATXIKIMENDUA

«Lan asko egin da, eta gero eta herritar gehiagok azaldu du proiektuaren aurkako jarrera»

eskubidea du bere lana egiteko, proiektu hau kritikatu, zailtzan jarri eta aurre egiteko. Guk uste gugu Udalak herritarren eskubideak zapaldu ez, herritarren eskubideak babestu eta askatasunak bermatzeko erantzukizuna du».

Batzarra, irailaren 7an

Aurrera begira «AHTren aurkako lanari gogor eusteko prest» azaldu dira elkarlanekoak. Gainera, hurrengo hilabeteak, proiektuak aurrera edo atzera egin dezan, oso garrantzitsuak direla azpimarratu dute.

Horregatik, batzar irekira deitu dute: «Bertan azken urtean egindakoari errepaso emango diogu, proiektuaren egungo egoera aztertuko dugu eta aurrera begira emango ditugun urratsak zehaztuko ditugu».

Batzarra irailaren 7an, astearte, izango da. 19:00etan da hitzordua, udaletxean. Jende guztiari bilerara joateko gonbita egin diote Elkarlanekoek: «Parte-hartze guztiak, txikiak iruditu arren, lagungarriak eta beharrezkoak dira».

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etb.: 672411
Ikaztegietia. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartain. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion Klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Tolargi: 65 00 16
 ▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
 ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
 ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aurrerik aldizkaria: 30 07 32
 ▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888
 ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
 ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Morant, R., Zabalarreta, 1
 (Tolosa). 67 38 49.
 Erbiti, O., Lizarraga, 7 (Leitza).
 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldeen_public@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoeta-Idaia. 687 41 00 22
 anoetaidaia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldeko. 687 41 01 18.
 leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

GUTUN@K ▶

Amezketan
gauzak garbi!

Ametzak taldeak uztailearen 3an herrian banatutako idatzia eta azken egun hauetan Txindokipe plataformari buruz komunikabideetan Aralarrek egindako adierazpenen aurrean honako argipen hauek egin nahi ditugu:

Gezurra da (eta ezin da onartu) Txindokipe herri plataformak 2003ko maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan Amezketan eman zen herri borondatea errespetatu ez dugunik. Madriletik martxan jarritako ilegalizazio prozesu faxistaren ondoren, gure herrian ilegalizatu suertatu zen Ametzak taldeak hasiera-hasieratik izan zuen gure babes, begirune eta errespetua.

Bai udal hauteskunde hauen aurretik eta bai ondoren, Txindokipeko kideok, bozka txurien bitartez ordezkatu zen pensamendeari udalean zegokion

ordezkaritza emateko borondate guztia adierazi genien Ametzak taldeko kideei. Beraz, jakin bezate amezketarrek eta Euskal Herria guztiak ere, guk bide guztiak irekita dauzkagula.

Horren froga gisa, hona hemen hitzez hitz Txindokipe herri plataformak egindako adierazpen eta eskaintzak eta Ametzak taldeak emandako erantzunak (idatziz jasota daudenak):

2003ko maiatzaren 6an Txindokipe plataformak Ametzak taldeari igorritako idatzia: «Amezketako Txindokipe plataformak honako hau adierazten du: Maiatzaren 25eko hauteskundearen aurrean Aznarren gobernuak ezker abertzalea desagertarazteko martxan jarri duen estrategiarekin ondorioz Ametzak udal-taldea, beste 240 hautagai zerrindarekin batera, espainiar legalitatetik kanpo gertatzeko arriskuan dagoen honetan, hauteskundeetan lortutako bozka kopurua eta herriaren hitza eta erabakia erres-

petatuko duela». Ametzak taldeak honakoa erantzun zuen: «Txindokipe plataformari: Eskerrak ematen dizkizuegu gure egoera ikusita hartu duzuen erabakiagatik, hauteskundeetan lortutako bozka kopurua eta herriaren hitza zein erabakia errespetatzeko asmoa azalzteagatik, hain justu ere». (2003ko maiatzaren 8an igorria).

Txindokipe plataformak udal hauteskundearen ondoren, honako idatzia lutzatu zion Ametzak taldeari (2003 ekainaren 30ean): «Aurrez jakinarazi genizuen bezala, berriro ere ondorengo gogorazari nahi dizuegu: Espainiar legalitatearen arabera bi zinegotzi dagozkigun arren, Txindokipe taldeak jasotako botuen arabera zinegotzi bakarra izango genuke eta ondorioz, zinegotzi bat uzteko prest gaude. Egoera honen aurrean zuten erantzunaren berri jakin nahi dugu, ea zuek zinegotzi hori hartu behar duzuen ala ez, datorren ostegunerako,

uztailearen 3rako». Eta Ametzak jarraian honako idatzia lutzatu zion Txindokipe taldeari (2003ko uztailearen 3an): «Asko eskertzen dugu zuen partetik zinegotzia eskaintzea. Hauteskunde hauek herrian sortu duten nahastea konpontzen hasteko gesto polita da. Hala ere, irudizten zaigu, batetik, eskaintza behar bezala baloratzeko denborarik ez dagoela gaurtik biharrera. Bestetik, datozen lau urteetarako herrirako planteamendu orokorra egin beharra dagoela, bihar udaletxean sartuko diren bi taldeak eta ordezkariarik gabe geratu diren amezketar guztien artean. Horretan hasteko prest gaude Ametzak».

Oharra: Azken idatzi hau eskuratzearekin batera adierazi zitzaizgun (hitzez) eskaintako zinegotzia gure hartzeko, hobe zela guk hartzea udaletxean sartuko zen beste taldeak hartzea baino.

Beraz, gauzak garbi!!
 TXINDOKIPE PLATAFORMA ▶ AMEZKETA

ALTZO ▶ JAIK

San Inazio eresia dantzatuko dute jaien lehenengo egunean

Zikero-jatea egingo dute herriko pilotalekuan jaiari hasiera eman eta gero

OLAIA ESKITXABEL

Bonba japoniarrekin, buhanderiekin eta txistulariekin emango diete hasiera altxotarren San Inazio jaiari. Ondoren, zikeroa jateko bilduko dira 200 lagun inguru herriko pilotalekuan. Gauean, San Inazio eguna hasten den minutu berean, San Inazio eresia dantzatuko dute hainbat herritarrek txistularien laguntzaz.

Bihar, hain ezaguna den erlojuaren aurka afizionatu mailako txirindularien XIII. Altxoko Igoera (Calcinor saria) izango da: «Berrogeita hamar txirindularik hartuko dute parte», azaldu dute antolatzaileek. 11:30ean hasita, Larraitz auzotik banaka minutuoro irtingo dira txirindulariak. Ibilbideak, 5,2 kilometro ditu; kilometro eta erdi inguru aldapan gora egiten dute eta gainontzeko lau da. Denborarik onena izan zuten Gaizka Lejarreta bizkaitarrak; ibilbidea, 7,49 segundutan egin zuten.

Gauean, gainera, Kauta talde andoiaindarra eta Aguraingo



Aurten ere marrazki lehiaketa egingo da. M. JAUREGI

Kaotiko taldeen kontzertuak izango dira entzungai. Ondoren, Trikiotz taldeak joko du goizaldera bitarte.

Haurrentzako ekitaldi ugari ikus daitezke egitarauan: puzgariak, quad motorrak, Potxin eta Patxin pailazoak, marrazki erakusketa, txirindulari probak...

Helduek ere ez dute asperetzeko aukerarik izango: bertolariak, plater hausketak, lehiaketa, pilota partidak, txakoli dastaketa...

Lau egun dituzte aurretik altxotzarrek ondo pasatzeko.

EGITARAU ▶

GAUR

19:00. Jaien hasiera.
 20:30. Zikero-jatea.
 23:30. Laiotz taldea.
 00:00. San Inazio eresia.

BIHAR

09:00. Goiz eresia herriko txistulariekin.
 10:00. Meza nagusia.
Ondoren. Hamaiketako herriko adinekoentzat.
 11:30. XIII. Altxoko Igoera.
 15:30. Artea herriko dantza taldearen emanaldia.
 18:30. Herri kirolak: Arrospeida eta Azurmendi aizkolariak eta Ostolaza harrijasotzailea.
 00:00. Kauta eta Kaotiko taldeen kontzertua.
Ondoren. Trikiotz taldearen emanaldia.

ETZI

11:30. Pilota partidak pilotaleku berrian.

15:30. Plater hausketak. (Antolatzaileek ez dute ezbarren ardua hartuko).
 18:30. Potxin eta Patxin pailazoak herriko plazan.
Afalordura bitarte. Nekin taldea.
 22:00. Bertso jaialdia : Egaña, Lujanbio, Maia, Iturriaga, Colina eta Martin.
 23:30. Nekin taldea.

ABUZTUAK 2

11:30. Marrazki erakusketa.
 12:30. Txakoli dastaketa. Eta artean, toka txapelketa herrikoa.
Egurdian. Haurren txirindulari probak.
 15:00. Puzgariak eta Quads motorrak.
 15:30. Mus txapelketa azkarra herritarrentzat.
 18:00. Herritarren arteko pilota txapelketaren finala.
 21:00. Zahagi ardoa.
 23:00. Epelde eta Larrañaga trikiolariak.

LEITZA ▶ UDALA

Harrobiaren inguruan herri-kontsulta egiteko eskaeraz

Kontseilu sektorialak eratzeko proposamena eztabaidatuko dute ere, besteak beste, gaur burutuko den batzarrean

JAIONE ASTIBIA

Gaur iluntzean, hilabeteko azken ostiralero bezala, 21:00tan burutuko den batzarrean, harrobiaren inguruan herri-kontsulta egiteko eskaera izanen dute, gai ordenean tratatu eta eztabaidatu beharreko gai nagusienetakoa.

Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak ekainaren 17an, udal erregistroan sartu zituen 442 sinadurekin batera, egindako eskaerari erantzunen diote eta herri kontsulta egin ala ez erabaki.

Jakina denez, ekimen hau guztia, Albiño parajearen berriz ere —duela 10 urte izandako bera— harrobia irekitzeko egitasmoaren berri izan zenean jarri zuen abian herritar talde batek: «Gai horrekin kezkatuta» eta «bere garaian eragin zituen kezka, eztabaida eta iritzi

kontrajarriek» bulkatu zituztela zioten ekimen honen aurkezpenekoan. Eta batez ere, Udalak bere garaian herri kontsulta egiteko hartutako erabakiari atxikiz, orduan egin ez bazen ere, «ezinbestekotzat», jotzen zuten hori bulkatu eta egitea.

Ekimen honen talde sustatzaileak, herri kontsulten inguruan urriaren 28ko 27/2002 Foru Legeak ezartzen dituen pausoak jarraitu ditu zehatz-mehatz eta, horrela, 442 herritarrek abalaturako herri kontsulta eskaera egin zion Udalari. Gaur erabakiko dute, egin edo ez.

Dena den goian aipatu den Foru Legeak argi uzten ditu, prozedura hau jarraituz, batzarrean herri kontsulta egiteari uko egiteko izan litzakeen arrazoiak: Udalaren eskumeneko erabakia ez izatea, biztanlegoaren %10ek baino gutxiagok

egitea herri kontsulta eskakizuna, hauteskunde garairekin bateratzea edota ordenamendu juridikoaren aurka jotzea. Horiek laurak dira eta soilik horiek, udala herri kontsulta ez egiteko erabakia hartzea behartu dezaketenez. Bestalde, herri kontsulta egitea erabakiz gero, galdera zein izanen den ere aukeratu behar dute. Edozein moduz, erabakia gehiengoz hartu behar da, kasu honetan, 11 zinegotzitatik 6en aldeko bozka jasoz. Egungo udalbatza EAko bik, Aralarreko lauk, UPNeke bostek osatzen dute, Larrain H.P.ko hiru hautetsiek parte hartzea eragotzia dutelarik.

Sinadurak aurkezterakoan Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak adierazi zuten «eman beharreko pauso guztiak Foru Lege horren arabera egin ditugu eta ez dugu



Ekainaren 17an sartu zituzten sinadurak erregistroan. J. ASTIBIA

aurrera joateko eragozpenik ez, eta itxaropentsu agertu ziren, bere garaian.

Kontseilu Sektorialak

Besteak beste, egun daramaten udal funtzionamenduan aldatuta bat egiteko proposamenaz ere eztabaidatuko dute batzarrean: kontseilu sektorialen eraketari buruzkoa, bera. Oraindikokoan gaikako ba-

tzorde informatiboekin funtzionatu badute ere, aurrerantzean kontseilu sektorialak eratzeko proposamenaz ariko dira.

Bestalde, ohiko tramiteko puntu batzuk tarteko direla, herri babesari buruzko hitzarmenaren oinarriak eta «zigilu eleaniztunak» kanpainaren baitako mozio bat ere hizpide izanen dituzte, festa aurreko azken batzarrean.

ARESOKO ▶ KULTURA

Festa aurrea girotzeko, ohiko udako emanaldiak izanen dira umeentzat

Zinea eta pailazoak izango dituzte aukeran

J. ASTIBIA

Urtero bezala, Aresoko Udala Euskara Zerbitzuak, udako emanaldiak antolatu ditu, uda garaian aisialdirako ere beta gehigo izaten baita, meek batez ere, eta baita gogoia ere.

Horrela, Ilargipeko Zinea zikloaren baitan, udako zine emanaldiak burutuko dira, hurrengo astean, bi egunetan. Esan beharrik ez dago filme hauek euskaraz izanen direla.

Egunean bertan, biltzen diren ikusleen artean aukeraturiko dituzte ikusi beharrekoak.

Bestalde, Hizkuntz Politikako Zerbitzuaren laguntzaz, Mozorro Berri kanpainaren barrenean, Popi eta Zaratrako pailazoen emanaldia izanen da ikusgai: antzerkia, magia, joko malabarrak, zuzeneko musika ez ezik, bertan bilduko diren ume nahiz helduek dantzarako gonbidapena ere jasoko dute, aspertzeko arriskurik gabe.

EGITARAUA ▶

ILARGIPEKO ZINEA

Trinketean. 22:00tan.

- ▶ Abuztuak 2.
- ▶ Abuztuak 3.

MOZORRO BERRI

Popi eta Zaratrako pailazoak.

- ▶ Abuztuak 7. 19:00tan, herriko plazan.
- ▶ 25 urte barrez eta algarabizian lana.

GIZARTEA ▶

Ongizateko zerbitzuak iada egoitza berrira doaz

J. ASTIBIA

Hurrengo aste osoa, abuztuaren 2tik 6rakoan, Patxi Arrazolako egoitzara lekualdatzen ariko direla eman dute jakitera Gizarte Zerbitzuetatik bertatik eta hori dela eta, aste horretan ez omen dute inor hartuko.

Baina abuztuaren 9tik aurrera, jada egoitza berrian, berriz ere ohiko zerbitzuak emateari berrekinen omen diete. Nahiz eta lekuz aldatu,



Patxi Arrazolako egoitza. J. ASTIBIA

Gizarte eta Drogomenpekotasun Zerbitzuetako telefono zenbakiak bere horretan mantenduko direla jakinarazi dute.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Udaletxeko Batzar Aretoa etzi 12:00etan Maxurrenea herrintzat herri ekimenak antolatuta, Urko Arozenarenkontzertua, txistu eta marinbarekin.

Leitza. Santa Krutz ermitan, urteroko erromeria: meza, bazkaria, trikitaliak, mus txapelketa... Etzi 13:30ean.

Tolosaldea. Presoen aldeko kontzentrazioak. Ohiko toki eta orduetan. Bihar 11:45ean presoen aldeko kontzentrazioak errepideetan.

JAIK


Villabona. Gorritiren haur jaialdia 11:00etatik 13:30era; koadrilen bazkaria 14:30ean Etxe-Ondon; ondoren kalejira Incansables txarangarekin; erromeria Triki ta ke taldearekin 20:00etan plazan; bertsolariak Arroan 22:30ean eta erromeria Triki ta ke taldearekin 24:00etan plazan.

MUSIKA

Tolosa. Tolosako Musika Bandaren San Inazio kontzertua plaza Berrian 23:00etan. Dantzarako doinuak: tango, fandango, pasodoble... Gau Giro barruan.

Bidali oporretako argazkia

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Opor egunak datoz —guretzat behintzat—, egun eder hauek nola bizitu dituzuen irailean kontatu nahi dugu; irudiak bidal itzazue



Mendia, hondartza, atzerria, etxea... Argazkietan: Venezia, Pirinioak, Irlanda eta Karibe. HITZA

ERREDAKZIOA

Atsedenerako egunak iritsi dira askorentzat. Hitzarentzat behintzat bai, abuztuan oporrak hartuko baititu. Egundak bidai ugari egingo ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko jendeak. Beste batzuk berriz, etxe inguruan geldituko dira atseden egun hauetaz gozatzen. Mendia ala hondartza? Atzerria edo etxe ingurua? Aukera guztiek dituzte bere abantailak eta bere alde txarrak. Paraje ederrak topa daitezke etxetik milaka kilometrotara. Baita etxe ondoan ere. Bilatu behar!

Irailean HITZAREN irakurleen oporren berri eman nahi dugu HITZAN. Zuek izango zarete protagonistak. Oporretako argazki politak atera eta irailean ekarri edo bidali gure erredakziora —Araba etorbidea 5, behea. Tolosa, obretan ari dira kalean, ez ikaratu—.

Argazkiarekin batera, kontatu istorio txikiren bat oporren inguruan: non atera duzuen argazkiak, nondik nora ibili zareten, norekin, zer moduz pasatu duzuen, e.a. Bidali egoitzara eta horren berri emango dugu HITZAN.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, urtemuga... hemen argitaratzeko ekarri argazkia HITZAREN egoitzara



Haritz Vallejo (Amezketeta).

Alemaniarra joan zinen ta/ proiektua egitera/ aitzaki hortan oporretara/ eta zerbeza edatera/ sei hilabete osotan / haruntza eta honera/ baina azkenean behintzat/ bueltan zatotz ebera. Zure anaiazen partetik ongi etorri, Haritz.



URTE ASKOAN

Unax Marotias Garmendia.
 Gaur urtebete. Zorionak eteko «gindillari». Izebaren partetik.



ZORIONAK

Unax Marotias Garmendia.
 Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Aitabo eta amabxo.




URTE ASKOAN

Iraitz (Izaskun). Abuztaren 28an 10 urte. Etxeko bihurtzerari zorionak amabxo, Amara eta ebeko guztien partetik. Ongi pasa.



URTE ASKOAN

Joxi (Berastegi). Gaur urteak betetzen ditu. Kikun eta ebeko guztien partez, zorionak eta ondo pasa. Musu bat.



URTE ASKOAN

Manex Oruesagasti Ermina (Amezketeta). Gaur 2 urte. Etxekoan partetik.



URTE ASKOAN

Marina (Izaskun). Abuztaren 14an urteak beteko ditu. Zure seme-alaba eta iloben partez, zorionak amabxo. Ongi pasa egun handia.



ZORIONAK

Ixaxkun Garmendia (Ibarra). Egundak batzuen atzerapenarekin... Zutaz asko gogoratzen den bat.